



4. EKONOMIA ETA FINANTZAKO AZTERKETA ETA EXEKUZIO PROGRAMA

Azalpenetan esan bezala, LPParen aldaketa horrek gomendio gisako xedapen arauemaileak ditu, hirigintza- eta lurralde-planeamendu sektorialerako inspiragarri izango diren paisaiaren kalitateko helburu batzuekin, baita paisaiaren ekintza planak egitea gomendatzen den paisaia intereseko eremuekin ere.

Beraz, espedientearen edukia ikusirik, esan behar da honako Lurralde Planaren aldaketari ez dagokiola egitea ekonomia eta finantzako azterketarik, ez eta jarduketa-programarik ere, hain zuzen ere, gomendio gisako zehaztapenak baitira eta, hori horrela izanik, ez dakarte inplizitua ez inbertsio definiziorik, ez aldi baterako programarik.